



Goierri Hiritarra



Lehenik eta behin **Ordiziako** herria ezagutuko dugu; Barrenetxe Etxean Delikatuz Zentroa dago: Goierriko Interpretazio Zentroa eta Elikadura eta Gastronomiari buruzkoa, eskualdea eta Euskadiko gastronomia ezaguzeko beharrezkoak direnak; 1.512tik gaurdaino asteazkenero, balio turistikoa nabarmena duen azoka ospatzen da. Bertan, Goierriko nekazaritza produktua eta abereak ikus daitezke (ostiral arratsaldeetan ere, kalitatezko produktuen azoka ospatzen da). Honekin batera Murtzo Historiko- Monumentaltzat jotzen den hirigune historikoa bisita daiteke. Ondoren, **Beasaina** gerturatuko gara Igartzako Murtzo Monumentala ezagutzeko: Jauregia (diaporama bat dago ikusgai), errota, burdinola, ostatua, ermita, zubia eta gurutzeta. **Lazkao**n amaituko dugu eguna, Infantadoko Jauregia, Beneditarren Komentua, Bernardatarren Monastegia eta Lazkao Txiki bertsolari ezagunaren estatua ezagutzeko.

1
A
E
D
B
L
B
I